




2015

CESSA—CONSUMO SUPERVIGADO

2010

CENTRO DE EMPLEO

2003

MANTENIMIENTO CON METADONA

2001

CENTRO DE DÍA

1996

PROGRAMA ADOLESCENTES Y FAMILIA (CHRUSTA)

1992

INTERVENCIÓN EN PRISIÓN

1987

PROGRAMA FAMILIAS

1985

PUESTA EN MARCHA DE PROYECTO HOMBRE/ SUZUKIA

2015

CENTRO DE ACOMPAÑAMIENTO A LA INCLUSIÓN SOCIAL

2006

PROSECCIÓN E INTERMEDIACIÓN PARA EL EMPLEO

2002

CECANA Y PROSECCIÓN INICIALES

2000

SERVICIO DE VIT TELEFÓNICA

1995

FORMACIÓN Y EMPLEO

Gizakia
Pertsona bat, etorkizun bat
Una persona, un futuro

2015 EKO MEMORIA

fundación
Gizakia
fundazioa



30 URTE
ANOS

Proyecto **Hombre**
Gizakia Helburua
ERENKA BERRIKI EUSTEN
AFTUNTANDO NUEVOS RETOS



Gizakia

Pertsona bat, etorkizun bat
Una persona, un futuro



Bilboko Elizbarrutiak sustatutako gizarte-erakundea gara, eta bizi-zailtasunak dauzkaten pertsonetako konpromisoa dugu, euren ahaleginarekin eta gure laguntza profesionalarekin zailtasun horiek gainditu ahal izan ditzaten. Horretarako bitartekotzat hartu dugu haien familia eta gizarte inguruneekin elkarlanean osatutako proiektua.



www.gizakia.org

URTEKO GERTAKARI NABARMENAK

2015ean Bizkaiko Gizakia Helbururen 30. urteurrena ospatu dugu, erakundeak abian jarri zuen lehenengo programa. Geroztik, gaur egun garatzen ditugun gainerako programak eta zerbitzuak sortzen joateko hazia izan zen orduko hura.

Urteurren hori gogoratzeko, ospakizun-ekitaldi batzuk antolatu genituen, eta haien artean ondorengo hauek azpimarratu ditugu:

- “Lankidetzaz soziosanitarioa menpekotasunen arloan” izeneko Jardunaldi Teknikoa. Jardunaldiak interes handia piztu zuen, eta eragin nabarmena izan ere bai esparru horretan lan egiten duten profesional eta erakunde kolektiboan. Sektoreko 80 erakundeetako 280 lagunek eman zuten izena: bi eztabaida eta gogoeta egunei buruzko balorazio oso positiboa egin zuten.
- Abandoko San Bizente Martiriaren parrokiari Iralabarri abesbatzaren emanaldia; bertan Bilboko gotzain Mario Izeta jaunak zuzendutako Eskerrak Emateko Ekintza ekitaldia ere ospatu genuen.

Gure historia egokitzapen, aldaketa, ikaskuntza eta ilusioz beteta dago, eta aldatzeko eta gainditzeko prozesuetan laguntzeko aukera izan dugun lagun milaka bizi-historiak onduta da. Atzera begiratzeak bulkatu egiten gaitu etengabe, dinamismoa eta sormenari eutsiz, desafio berriei aurre egiteko.

www.gizakia.org



fundación
Gizakia
fundazioa



30 URTE
AÑOS

Proyecto **Hombre
Gizakia** Helburua
ERRONKA BERRIEI EUSTEN
AFRONTANDO NUEVOS RETOS

GLZ



MAZS



Horregatik, 2015. urtea berritzeko eta hazteko urtea ere izan da: gure irudi korporatibo berria aurkeztu dugu eta zerbitzu berriak ireki ditugu.

Horiek horrela, gure zerbitzu sorta zabaltu egin dugu, beste bi proiektu berrekin:

- Menpekotasunak Artatzeko Zentro Soziosanitarioa: MAZS. Eskakizun baxuko baliabidea da, gainbegiratutako kontsumoa eskaintzen duena, erabiltzaileak eta baliabide soziosanitarioen artean zubi lanak eginez, gizarteratze-prozesuan aurrera egitera zuzendutako egoera soziala eta pertsonala hobetzen lagunduz. Zentro hori Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak elkarrekin finantzatzen dute.
- Gizarteratzen Laguntzeko Zentroa (GLZ) Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartutako zerbitzu espezializatu da, eta adikzioak dituzten pertsonen gizarteratzeko behar multzoari erantzuten dio. Etengabeko laguntza eskaintzen du, nola era aktiboan kontsumitzen ari direnentzat, hala gizarteratzeko prozesuko azken unean daudenentzat ere.

Gainera, kalitate estandarrak txertatzeko egin dugun apustuak aukera eman digu Kudeaketa Aurreratuko ereduarekiko Konpromisoaren Kalitate Diploma lortzeko; Euskaliteko Ebaluazio Klubak egin zuen kanpoko kontrastea.

www.gizakia.org

ESKU HARTZEAREN IRISMENA



ADIKZIOAK 1.646

Familiak Artatzea	620	%32	%68
GLZ	272	%83	%17
Eguneko Zentroa	127	%85	%15
MAZS	402	%84	%16
Komunitate Terapeutikoa	113	%77	%23
Esku Hartzea Espetxean	97	%96	%4
TSO	89	%76	%24



PREBENTZIOA 479

	Nerabeak		Familiak	
Orientazioa eta aholkularitza	93	%71	228	%41
Esku hartze psikoterapeutikoa	82	%63	160	%40
		%29		%59
		%37		%60



LAN MUNDUAN TXERTATZEA 729

Lanbiderako orientazioa	729	%64	%36
Lanbiderako prestakuntza	245	%76	%24
Lanbideko zentroa	499	%70	%30
Lan-bitartekaritza			
Kontratututako lagun kop.	43		
Jakinarazitako enpresa kop.	127		



5.055

Lagun Artatu Genituen



AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA 2201

Pate hartzaile kop.	2201	%48	%52
Ikastaro eta tailer kop.	120		
Aholkatutako erakundeak	4		



%62

%38

ADIKZIOAK

1.646



%83

%17

Emakume gehiago egoitzako tratamenduan

Emakumeen kopurua %23koa da dagoeneko; gainera, biztanleria gero eta zaharragoa da, **eta 42 urte baino** gehiagoko jende taldea %53,7koa da emakumezkoen kolektiboaren baitan.

Patologia Duala

Gizarteratzen Laguntzeko Zentroa, Eguneko Zentroa eta Komunitate Terapeutikoko erabiltzaileen artean %70 eta %79 bitartean dagoen ehuneko batek adikzioa izateaz gain, **buru-patologia diagnostikoa ere** badute.

Asebetetze-adierazle orokorra

7,06

9,10

7,93

Emakumezko kolektiboaren asebetetze eta balorazio graduak, gure ustetan, talde profesionalak eta boluntarioak eurekin izan duen kontu eta sentiberatasun berezia erakusten du, eta baita erakundean bultzatzen den genero ikuspegia azpimarratzeko ahalegina ere.

Gehien kontsumitzen diren drogak



Kokaina
%35

Heroina
%22

Alkohola
%21

Kanabisa
%12

Adikzioen esparruan era guztietako **droga-menpekotasunak** artatzen ditugu, alkoholarena eta sustantziarik gabeko adikzioak barne. Adikzioak dituzten pertsonen kolektiboa heterogeneoa denez, **arreta integrala eta pertsonalizatua** eskaintzeko aukera ematen diguten hainbat zerbitzu mota dauzkagu eskura. Banakako esku hartzei esker, arreta mota, bere intentsitatea eta eskakizun-maila pertsona bakoitzaren beharretara egokitu daitezke. Gure zerbitzuen katalogo zabalak aukera ematen du artatzeko bai euren adikzioa kentzea erabaki duten pertsonak, **eta baita menpekotasunaren eragina gutxitu eta bizi kalitatea nahiz eguneroko funtzionamendua hobetu nahi duten lagunak ere.**

PREBENTZIOA

479



%49

%51



Artatutako nerabeen batez besteko adina jaitsi da

2015ean artatutako nerabeen batez besteko adina **16,5 urtekoa** izan da. 2014an, aldiz, 17,28 urtekoa izan zen.

Familiak

Artatutako kolektiboaren barruan jarraitzen dute berriz **osatutako familiek -%18-**, guraso **bakarrekoei -%13-** eta **etorkinek %9**. Halaber, agertzen hasi dira seme-alaba nerabeak dauzkaten **familia adoptatzaileak -%7-**.

Prebentzioko antena berria

Zornotzako Udalarekin lankidetzan, **nerabe eta familientzako** arreta zuzeneko zerbitzua eskaini da udalerrian.

Asebetetze-adierazle orokorra



9,16


9,31

9,24

Bideratzaileak %

Gizarte zerbitzuak	27
Lagunak - Familiakoak	15
Ikastetxeak	15
Osasun Zentroak	10
Bestelako bideratzaileak	33

Kontsultarako arrazoiak %



Arlo hori nerabeen arazoak artatzen espezializatuta dago, horiek gainditzeko laguntza eskainiz, nerabearekin, familiarekin eta bere inguruarekin era orokorrean lan eginez. Arlo horretan garatzen diren ekintzak aipatutako prebentzio-eginkizunen baitakoak dira; dagoeneko epe ertain edo luzean desoreka bihur daitezkeen arrisku-portaerak izan dituzten gazteei arreta pertsonalizatua ematea du ardatz. Horrenbestean, esku hartzeak unean uneko krisia berehala geldiaraztea du helburu eta etorkizuneko arazoa berriz ez sortzea.

GIZARTERATZEA

729



%64

%36

Arreta-bolumena handitzea

Lanbide Orientazio Ekintzak nabarmen gehitzea, alde batetik, geu partaide gaituen **Bat Egin Bizkaia** Elkartearen egindako lanarekin lotuta dago, eta beste alde batetik aurtien Lanbiderekin hitzartutako **Enplegu Zentroak** emandako zerbitzuarekin lotuta.

Bitartekaritza zerbitzuaren lana

Enpresekin egindako sentsibilizazio lanari eta 2015ean bitartekaritza zerbitzuan egindako beharrari esker, **43 kontratu** lortu dira eta artatutako lagunen %30,7k **lan-esperientzia bat** izan dute gutxienez.

Asebetetze-adierazle orokorra




9,08

9,00

9,01

Prestakuntza akademikoa

Artatutako lagunen %73,25 prestakuntza maila baxuengatik nabarmendu da: gehienez derrigorrezko hezkuntzako helburuak betetzen dituzte. Horietako %88,2 lanik gabe zeuden zerbitzua eskaini zitzaizaien lekura joan zirenean.



Arloaren helburua lan-bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonak lan munduan txertatu eta ondoren lanpostuetan manten daitezen sustatzea da, eta, horrenbestean, irekita dago lan-merkatuan sartzeko aukerei dagokienean kolektibo ahulenetako partaidea den edozein pertsonarentzat.

Esku hartzeak hiru jarduera-ildo ditu bere baitan: Enplegurako orientazioa. Enplegararritasuna hobetzeko prestakuntza. Enpresekin lan-bitartekaritza eta ondoren kontratazioen banakako jarraipena, nola langilearekin, hala enpresekin ere.

AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA



Ikastaroen eskaera handitzea

Handitu egin da **Hezkuntza Zentroetako** ikasleekin egindako **Droga-Menpekotasuneko Prebentzio** ikastaroen kopurua; ikastaroetan jorratu diren gaiak **alkohola, tabakoa eta kanabisa** izan dira.

Hezkuntza arloan irakatsitako tailerrak

Nerabeekin **droga kontsumoaren prebentzioko** langintza garatzen jarraitu dugu hainbat udalentzat, eta **2138 nerabek** hartu dute parte.

Asebetetze-adierazle orokorra

- Nerabeak



9,45

- Familiakoak



8,62

2.201



83%

17%

Lan arloko aholkularitza

Bizkaiko industria-sektoreko enpresa baten aholkulari izan gara. Lan horren ardatza langileak eta zuzendaritza taldea lan-esparruan drogak kontsumitzearen inguruko prebentzioa eta arriskuei buruz prestatzea izan da.

Arlo honetan garatzen diren ekintzekin gizartea kontzientziatu nahi dugu honako gai hauetan: adikzioekin lotutako arriskuak, bizitzeko ohitura osasungarriagoak bultzatzea eta arrisku-portaeretan garaiz oharu nahiz esku hartzearen garrantzia. Horretarako, Gizakia Fundazioko Aholkularitza eta Prestakuntza Arloak bere eskarmentu osoa jartzen du egin nahi den proiektuaren zerbitzura, eta hainbat jarduera-ildo garatzen ditu; hala nola, sentsibilizazio kanpainak eta jardunaldiak, jardunaldi teknikoak, prestakuntza planak eta aholkularitza.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA



Azterlan eta ikerkuntzetan parte hartzea

- Prebentzio arloak familiei eta prebentzio-programei buruzko NUPeko Azterlan batean hartu zuen parte 2015ean zehar, eta gero 30. urteurreneko jardunaldian aurkeztu zuen.
- **"Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria"** izeneko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren Ikerketa Proiektuan parte hartu zuen.

Gainera, 2015ean zehar Gizakia Fundazioak baztertutako emakumeen beharrei hobeto erantzun nahi dieten hiru azterlanetan hartu zuen parte:

- **"Adikzio desoreka duten emakumeak errehabilitatzeko zailtasunak genero ikuspegitik"**. Bartzelonako unibertsitatea.
- **"EAEn zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden emakumei buruzko aztelana"**, EAPN EUSKADIK eta Euskal Herriko Unibertsitateak zuzenduta.
- **"Emakumeen bazterketa sozialeko prozesuak eta gizarteratzeko euren ibilbideko hesiak analizatzea"**, Bizkaiko Foru Aldundiak Deustuko Unibertsitateari enkargatuta.

Argitalpenak, hitzaldiak eta jardunaldiak

- **"Berariazko esku hartzea drogaren menpeko emakumearekin"**, izeneko hitzaldia, Del Campo, M. "Droga-menpekotasunak: gizarteratzeko prozesuari laguntzea". Jardunaldien barruan. Bilboko Udala. Droga-menpekotasunen bulegoa. Bilbo. 2015eko maiatza.
- **"Gizarteratzea MAZSetik"**, izeneko hitzaldia, Fernandez Agirre, M., "Drogak desegoki erabiltzea eta drogen trafiko bidegabearen aurkako Nazioarteko Eguna". Bilboko Udala. Bilbo. 2015eko ekainaren 26a.

Bizkaiko Gizakia Helbururen 30. urteurrena oroitzeko Gizakia Fundazioak antolatu zituen **"LANKIDETZA SOZIOSANITARIOA MENPEKOTASUNEN ARLOAN"** Jardunaldien barruan, honako hitzaldi hauek aurkeztu ziren:

- **"Gizartean eta lanean txertatzea Gizakiaren ikuspegitik"**. Hizlaria: Redondo, C.
- **"Anden 1 adikzioak artatzeko zentro soziosanitarioa"**. Hizlaria: Fdez. Agirre, M.
- **"Gizakiako komunitate terapeutikoaren esperientzia"**. Hizlaria: Olmos, I.
- **"Adikzioak dituzten pertsonen gizarteratzen laguntzeko Gizakiako zentroaren esperientzia -GLZ-"**. Hizlaria: Del Campo, M.
- Komunikazioko buletina. **Gizakia Gertutik. 15. eta 16. zenbakiak**. Gizakia Fundazioa. 2015eko maiatza eta abendua.


TALDEA

Langileak

55,7 jardunaldi

%31

%69



Asebetetze-adierazle orokorra 

7,50

7,62

7,58



Gizakia Helburu Bizkaiaren 30. urteurrenagatik ospatutako Jardunaldietako langile eta boluntario taldea.

% 76,19

Langile finkoak



Boluntario-taldea. Lanaldi bukaerako irteera Loiola eta Treneko Museoa.



Boluntarioak

66 lagun

%26

%74

Beste 46 lagunek aldi baterako laguntza-lanak egin zituzten urtean zehar.

Asebetetze-adierazle orokorra



8,81

9,03

8,98

Praktiketako langileak

18 lagun

%22

%78


Praktikak hainbat zentzorekin lankidetzan egin dira: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, Bidebieta Institutua, Droga-menpekotasuneko masterra IDD, Alboran Zentroa eta Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala.

DATU EKONOMIKOAK




Erabilitako baliabide ekonomikoak

2.941.310,24 €



Lortutako finantzazioa

2.936.382,87 €



"AUREN Auditores" enpresak, Gizakia Fundazioaren kontuak ikuskatu ostean, adierazi du kontu horiek finantza-ondarea eta egoeraren irudi leiala azaltzen dutela, eta baita 2015eko abenduaren 31n bukatu zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzena ere.

FINANTZATZAILEAK



Finantzatzaile nagusiak

Erakunde publikoak



Enpresak eta gizarte-erakundeak



Horiez gain, beste erakunde pribatuak, erlijio-ordenak, bazkide laguntzaileak eta dohaintza emaila pribatuak ere bai.

Gu partaide gaituzten sareak



- | | |
|--------------|---|
| CEAA | • Adikzioak Artatzeko Erakundeen Konfederazioa. |
| UNAD | • Droga-menpekoea Artatzeko Elkarte eta Erakundeen Batasuna. |
| EAPN EUSKADI | • Pobreziaren aurkako borroka-sarea. |
| GIZARDATZ | • Bizkaiko ekimen eta esku hartze erakunden elkarte. |
| REAS | • Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea. |
| EZETZ | • Indarkeria matxistaren aurkako Euskal Sarea. |
| EKAIN | • Euskadiko Gizarteratzeko Sareak. |
| BESTE-BI | • Egoitza-inklusioren eta Etxerik gabeko pertsonen aldeko plataforma. |

Gainera, **osasan eta gizarte-zerbitzuetako sare publikoekin lankidetzan aritzen gara**, eta baita gurekin esku hartzeko esparruak partekatzen dituzten **Bizkaiko Gizarte Erakundeekin** ere.



GURE EGOITZAK



BILBO

Madariaga etorbidea, 63

48014. Bilbo

Telefonoa: 94 447 10 33

Faxa: 94 447 11 58

fundacion@gizakia.org

Simon Bolivar, 8

48010. Bilbo

Telefonoa: 94 444 05 07

Faxa: 94 410 17 02

hirusta@gizakia.org

Bailen 1, soto-azpia

48003. Bilbo

Telefonoa: 94 479 57 83

cessaa@gizakia.org



GORDEXOLA

Zubiete auzoa, 59

San Jose Ikastetxea

48192. Gordexola.

Telefonoa: 94 679 91 91

Faxa: 94 679 93 42

comunidad@gizakia.org

www.gizakia.org